

# 2024KO UDA - IGERIKETA KANPAINA

Datak: Ekainaren 26tik – Uztailaren 23ra

Prezioak:

**Maila guztiak (zapaburuak izan ezik):**

- 20 saio: 75€ Bazkideak / 122€ Ez bazkideak

**Zapaburu mailakoak soilik:**

- 12 saio (Al-Az-Or): 55€ Bazkideak / 90€ Ez bazkideak
- 8 saio (As-Og): 44€ Bazkideak / 72€ Ez bazkideak

Izena emateko prozedura:

- **Maiatzaren 6tik 20ra:** Aurretiko izen-ematea (zozketan parte hartzeko) Ipuruako atezaintzan edo eibarkirola.eus webgunean.
- **Maiatzaren 21etik 23ra:** Zozketako zerrendei alegazioak aurkezteko epea (Ipurua kiroldegiko iragarki-panela edo eibarkirola.eus). Alegazioak idazkaritza@eibarkirola.eus bidali beharko dira.
- **Maiatzaren 24ean:** Zozketa eguna (11:00etan Ipuruako harreran) eta emaitzen argitaratzea (Ipurua kiroldegiko iragarki panela edo eibarkirola.eus).
- **Maiatzaren 29ean:** Zozketan parte-hartu dutenen inskripzioen hasiera. (Ipuruako idazkaritzan aurrez aurre).
- **Ekainaren 5ean:** Bazkideak direnentzat eta zozketan parte-hartu ez dutenentzat inskripzioen hasiera (inskripzioaren hurrenkeraren arabera)
- **Ekainaren 6an:** Gainerakoentzako inskripzioen hasiera (inskripzioaren hurrenkeraren arabera)
- **Ekainaren 13an:** Inskripzioa egiteko azken eguna.

- **Ekainaren 17an:** Ikastaro bakoitzaren hasieraren baieztapena.

### Baldintzak:

- **Ikastaroak 2021 eta 2011 artean jaiotakoentzat dira.**
- Ikastaroei hasiera emateko, gutxienezko inskripzio kopuru baliiodun bat izan beharko dute, bestela, ikastaroa bertan behera geratuko da.
- Ikastaroaren ordainketa txartelan bitartez egin beharko da. Era berean, izena ematerakoan, kontu korrante zenbaki bat eman beharko da ikastaroa bertan behera geratzen bada ordaindutako dirua itzultzeko.
- Behin behineko inskripzioa egiterakoan, mailaren egiaztagiria edo diploma aurkeztu behar da (zapaburu eta ahate mailetan izan ezik). Ez dagokion maila batean izena emanaz gero, aukeratutako plaza galduko da eta eskaintzen zaizkigun aukeren artean aukeratu beharko dugu (ikastaroaren zenbatekoa ez da inolaz ere itzuliko).
- 2021ean jaiotako guztiak eta uretan esperientziarik ez duten 2020an jaiotakoak ZAPABURU mailan apuntatu beharko dira.
- **Maila-probak:** Maiatzaren 27ean (aurretiko hitzordua hartuta: **teknikariak@eibarkirola.eus**)
- Abonatuek abonatu-txartelarekin zuzenean tornoetatik pasa ahal dira; abonatu ez direnek berriz, atezaindegitik igaro beharko dute eta ikastaroaren ordainagiria erakutsi.
- Saioen iraupena 40 minutukoa izango da. Haurrak ematerakoan eta jasotzerakoan **puntualtasuna** eskatzen da. Txankleten erabilera nahitaezkoa da laguntzaile guztientzat, bai dutxen inguruan, aldagelen barruan, bai igerilekura igotzeko sarbideetan (hallean eta eskaileretan).

